

«Estatuen mugen gainetik bizi dugu ijito sentimendua»

Tamalez, ez dira gauza bera ijito zapataria eta zapatari ijitoa. Hitzen hurrenkerak ideien hurrenkera salatzen du. Krystal ijitoa da, eta bere zapatek ondo dakite norantz doazen.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Ijitoa zara. Arrazaz? Sentimenduz? Kulturaz?

Ijito izateaz ari garenean sentimenduari buruz ari gara. Arraza hitza baino nahiago izaten dugu etnia erabili, arrazek banatu egiten baikaituzte; etniak, aldiz, aniztasunaren adierazle dira. Baina sentimendua da inportatu duena: ijito sentitzeak egiten gaitu ijito. Barruan daramagun zerbait da.

Zerk definitzen zaitu zu ijito gisa?

Aipatu dizudan sentimenduak eta ziurtasun batek: egiten dudana egiten dudala, beti izango naiz ijito. Gerta liteke pentsatzea ijito egiten gaituena jarrera konkretu batzuk hartzea dela; bizimodu, gustu edo iritzi jakin batzuk izatea dela. Baina ez, alderantziz, ijito izaera beste denaren gainetik dago: bide ugari har ditzaket bizitzan, baina ijito izango naiz beti. Sentimendu hori nirekin doa, noan lekura noala. Emakume borrokalaria naiz, eta sinistena dudana horren alde egiten dut lan.

Lehenengo ijito zara, eta gero beste guztia?

Hori da, ni ijitoa naiz beste ezer baino lehen. Ijito izateaz gain euskalduna ere banaiz, gizarte honen parte naizelako. Euskal nortasuna da ijito nortasunarekin batera gorde nahi dudana. Euskal kultura izan dut bizikide, eta hori ere nire sentimendu bilakatu da. Euskaldun ere sentitzen naiz. Ni Galizian jaio nintzen, baina bertan bizi izan ez nintzenez, ez naiz galiziar sentitzen. Sentimenduek osatzen dute gure nortasuna.

Baina mugak hor daude, eta estatuak, eta zer zaren esaten duten paperak...

Ijitoak nomadak izan gara urte askoan, eta hara-hona zabiltzanean oso zaila da nazio baten parte zarela sentitzea. Joan-etorrian

dabilenak ez du naziorik behar. Nik urte asko daramatzat Euskal Herrian eta, bai, euskaldun sentitzen naiz. Baina ijitoak Euskal Herrian, Frantzian, Finlandian, Alemanian..., ia mundu guztian bizi gara, eta estatuen mugen gainetik bizi dugu gure ijito sentimendua.

Kale Dor Kayikok (ijito elkartearen izena) "Biharko ijitoak" esan nahi du. Zer nahi zenukete biharko?

Osaba Manuelek jarri zion izena orain dela hogeitau urte, elkarte sortu zenean, eta polita da, gaur egungo ijitoak egingo baititugu biharko ijitoak. Elkarrekin lan handia egin du, errespetua bereganatu du eta onarpen publikoa ekarri du. Baina biharko eskatzen duguna ez dugu ijito gisa eskatzen, pertsona gisa baizik. Denok berdintasunean eta esku-bide berberekin bizi nahi dugu, ahal bada, gaur bertan, baina gaur ezin bada, biharko saiatuko gara.

Nor da Osaba Manuel?

Hau guztia martxan jarri zuena izan zen: duela hogeitau urteko ijitoek begira jarri eta etorkizuneko ijitoengan pentsatu zuen. Hari esker gaude gu hemen. Askoren ametsa betetzeko bidea jorratu zuen. Elkar-

Nortasun agiria

Krystal Montoya Jimenez 24 urteko neska da. Sei anai-arrebetan bigarrena da, eta Lutxana-Erandion bizi da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu eta Administrazio Kudeaketako zikloa egin zuen. Gaur egun, Kale Dor Kayiko ijito elkartearen egiten du lan, eta unibertsitatean sartzeko ikastaroa egiten ari da, irakasle izan nahi baitu.



Krystal

Montoya



tzen garen guztietan, festetan, ekitaldietan... esaldi hau errepikatzen digu: “Nire ametsak lortzeko dudak asmoa benetan indartsua bada, ez inork ez ezerk ezingo nau geldiarazi”. Esaldi hori esaten ez badu kezkatu egiten gara, zerbait falta dela sentitzen dugu. Erretiratuta dagoen arren, elkarteko lehendakaria izaten jarraitzen du Osaba Manuelek.

Kale Dor Kayikok ijitoen beharrei erantzuteko programak garatzen ditu. Zeintzuk dira behar horiek?

Oraintsu arte, gure artean eta guretzat bizi izan gara ijitoak: gure familian, gure ezagunekin. Nolabait esateko, gure kutxatxo barruan bizi izan gara. Orain kutxa hori ireki nahi dugu pixkanaka: beste espazio batzuetan sartzen hasi, beste espazioei gure kutxatxoan sartzeko aukera eman, estereotipoak hautsi, harreman berriak egin... Eta aldaketa gertatzen ari da.

Zein da zure lana Kale Dor Kayiko elkartean?
“Opre Roma” (“Animo, ijito!”) izeneko programan ari naiz lanean, eta gure helburua ikasle ijito guztien arrakasta akademikoa ziurtatzea da. Ikasle ijitoen beharrak identifikatzen eta haiei laguntzen saiatzen gara: ikastetxeekin, sendiekin eta neska-mutilekin egiten dugu lan.

Romaniera batua

1990. urtean egin zen romanieraren aldaera guztiak batzeko saiakera, eta ijitoen alfabetoa ere orduan sortu zen. Oso erabilgarria izango dela onartzen duten arren, hedapen prozesuan dago oraindik.

“Ijito izatea eta ikastea ez zetozeela bat iruditzen zitzaidan”. Pedro Casermeiroren hitzak dira, psikologian lizentziaturiko ijito batenak. Zuk ere bizi izan duzu halakorik?

Batzuetan, badirudi zarenak eta egiten duzunak talka egiten dutela, eta ikasketen aurrean ijito askok pentsatu izan ditugu “hau ez da niretzat”, “ez dakit ondo ari naizen”, “ez dakit nire bidea hau den”... eta halakoak. Izan ere, ikasketena mundu ezezaguna izan da ijitoentzat orain gutxi arte, eta ezezaguna denak izua ematen du. “Zergatik ari naiz besteek egiten ez duten zerbait egiten?”, pentsa dezake ijito batek ikasten hasten denean, eta horrek identitate krisia eragin dezake... Gure helburua ikasketen inguruko informazioa eta ezagutza zabaltzea da, gero norberak bere aukera egin dezan. Ereduak sortzea da, azken batean. Ereduak, aurrekariak arnasa ematen dute. Eta gero eta gehiago gara ikasketadun ijitoak.

Belaunaldien arteko talkarik eragin al du aldaketa honek?

Gure gurasoentzat berria da, haiek ez zuten halakorik bizi izan. Haiek izan ez zuten aukera da, nolabait. Eta, bai, zaila da kasu batzuetan, baina azkenean ohitu egiten dira, eta garrantzitsutzat ere jotzen dute. Haiek ez zuten aukerarik izan; guk, badaukagu. Bada, aprobetxa dezagun!



20. urteurrena

Kale Dor Kayikok 20 urte beteko ditu laster, eta ospatzeko eta proiektuan parte hartu duten guztiei eskerrak emateko hainbat ekintza antolatuko ditu elkarteak.

Politikoki zuzena da aniztasuna goraipatzea, baina aniztasun guztiak onartzen ditugu?

Denok dakigu kultura asko daudela, baina ijitoak oraindik ez gaude ondo ikusita. Entzuten dugunaren arabera, ikusten dugunaren arabera egiten dugu kultura bakoitzaren irudia, eta zer esaten da ijitoei buruz? Hilketa bat egon bada eta hiltzailea ijitoa izan bada, zehaztu eta azpimarratu egiten da ijitoa dela. Ijitoa ez bada, pertsonaren inizialak jartzen dira. Badirudi ijitoa ez dena neutroa dela, eta ijitoa, zuzenean gaizkilea. Ezjakintasunaren ondorio da, ez ezagutzeak beldurra ematen duelako. Beldurra da diskriminazioen motorea, eta beldur horiek gainditzeko bi aldeek egin behar dute elkarrengana hurbiltzeko ahalegina.

Integrazioa aipatzen da. Baina integraziotik asimilaziora tarte txikia izaten da batzuetan. Nola lortu kulturen arteko bizikidetza zuen izaera, zuen mundu ikuskera galdu gabe?

Guk ez dugu integrazioaz hitz egiten, parte hartzeaz baizik. Gu gizarte honen parte gara, ez diogu inori horretarako baimenik eskatu behar, eta ez gara inoren antzekoak izan behar. “Egon zaitez hemen baina ez inori trabarik egin”, hori da askoren diskurtsoa, baina ez, gure lekua ez digu inork maileguan eman, hemen gaude, beste denak bezala. Bizikidetza, harremana eta partehartzea dira giltzak.

Karipen

Gustura daudela adierazteko erabiltzen dute ijitoek “Karipen” espresioa. Hala izena du ijitoen ezaugarri historikoak eta kulturalak zabaltzera bideratuta dagoen programak. Helburu argiak ditu: **diskriminazioa, arrazakeria eta xenofobia ezabatzea eta gizarte bereizketari amaiera ematea.**

HAZTAPENA | Ekitaldiak | Muntai | Kultura | Kirolak

Informazio haria

Ipar Euskal Herrian
sorturiko euskal
egunkari digitala

www.kazeta.info

www.kazeta.info

www.kazeta.info

www.kazeta.info

www.kazeta.info

www.kazeta.info

IPARLA KOMUNIKAZIOA elkarteak
Donibane Garaiak
harremanak@kazeta.info

● Krystal Montoya

Ijitoen estereotipo marjinala eta folklorikoa baino ez ditugu ezagutzen. Gainerakoan ikusezinak zarete?

Ezin ukatu, artea zainetan darabagu! Baina egia da “ijito” esanda jende askori edo flamenko kantariak edo gaizkileak datozkiola burura eta... ez dago esan beharrik, hori baino askoz ere gehiago gara. Tamalez, ijito hitzak karga negatibo handia du berekin.

Adjektibo bezala ere erabiltzen da, pentsa.

Bai, ez dugu sekula ijito kazetarian, ijito abokatuan edo ijito polizian pentsatzen...

Eta nola aurre egin karga ilun horri pertsona eta herri bezala?

Ahaztu egin behar duzu, eta aurrera egin, bestela alferrik da. Ezin zara ibili beti zerbait demostratzen, ezagutu nahi zaituenak ezagutuko zaitu.

Romaniera da ijitoen hizkuntza transnazionala. 20 milioi hiztun omen ditu mundu osoan. Distantziaren, mugen eta denboraren gainetik iraun du hizkuntzak. Gauza handia da hori. Bai, aldaera askorekin, baina mantendu egin da. Ahozko transmisioa izan du hizkuntzak, bere alde on eta txarrekin: transmisio horri esker mantendu da hainbeste urtean, baina desitxuratuz edo molde berriak hartuz ere joan da.

Emakumeen taldea ere baduzue elkartean: Sin Romi. Zer helburu ditu?

Sin Romik “emakumea eta ijitoa” esan nahi du romanieraz. Helburuetako bat emakume ijitoek gogoeta egiteko espazioa sortzea zen. Emakume ijitoek osatzen dugu taldea, geuk zuzentzen dugu eta geure beharretarako erabiltzen dugu. Emakumeen jabekuntza bultzatzen dugu, gure bizitzari buruzko erabakiak guk hartzea. Geu mugitu, geuk egin, geuk erabaki. Gizonezkoekin batera goaz, jakina, denok izan behar dugu erabakitzeke ahalmena. Urtero jardunaldiak ere egiten ditugu martxoaren 8aren inguruan, eta leku askotako emakume ijitoak etortzen dira esperientziak elkarbanatzeko.

Zer esanahi du egungo gizartean emakume eta ijito izateak?

Emakume izatea bera zaila da, eta horri ijito izatera gehitzen badiozu, diskriminazio bikoi-

AZKEN HITZA

Erromintxela

XV. mendean Euskal Herrira iritsi ziren lehenengo ijitoen hizkera zen, euskara eta romaniera elkartzetik sortua. Adituen esanetan, ez da hizkuntza, ezta dialektoa ere: pogadolektoa da, hau da, “hizkuntza hautsia”. Desagertzeaz dagoen hizkuntzatzat jo daiteke, belaunaldi zaharrenek mantzentzen badute ere, Euskal Herriko ijito gazteenek ez omen dute erabiltzen. Espainian hitz egiten den kaloa ere –espainiera eta romaniera elkartzetik sortua– pogadolektoa da, munduko zenbait herrialdetan, oraintsu arte ahozko transmisioa soilik izan duen ijitoen hizkuntza desitxuratzen joan baita; gehienetan, jazarpenaren ondorioz.



tza esan nahi du. Baina zer egingo dugu, onartu? Ez, zamak zama, aurrera egingo dugu.

Ijitoei buruzko estereotipoetako batek kultura matxista duzuela esaten du. Hala iruditzen zaizu? Bai, matxista da, gizarte osoa bezala.

Ijitoak nomadak izan dira urte askoan. Orain ijito nomadak eta ijito sedentarioak daude, oso bizimodu ezberdinak dituztenak. Denen beharrak diferenteak izango dira. Nola lortu guztien bizikidetzatza?

Ijitoontzat, balore bat dago beste guztien gainetik: askatasuna. Bizimodu guztiak onartu behar genituzke. Ijitoen herriari ez zaio mugitzea kostatzen, gaur hemen gaude eta bihar han. Ez dugu lekualdatzeko arazorik eta, maiz, lekualdatu beste erre-mediorik ez dugu izan. Orain askoz ere nomada gutxiago dago, baina badaude furgonetatan edo kanpamenduetan bizi direnak, eta hori ere onargarria da guztiz. Orain enpresetan eguneroko ogia da mugikortasuna. Mugikortasun batzuk onargarriak dira eta beste batzuk ez?

Gizartea gero eta indibidualistagoa da. Nola eragiten dio horrek ijitoen familia egiturari?

Ijitoek garrantzi handia ematen diogu familiari, dena egiten dugu familian eta familiarantzako, eta hori ez da aldatu, oraindik egitura horri eusten diogu.

Nais tuqe (eskerrik asko), Krystal.

Naj sosqe (ez horregatik). ■

“Ijito esanda jende askori edo flamenko kantariak edo gaizkileak datozkio burura”